



GEROA

B G A E

2006^{ko}
Kudeaketa txostena

2006ko Kudeaketa Txostena

Bazkide agurgarriak:

Ekitaldi guztietan bezela, GEROA PENTSIOAK BGAEko datu adierazgarrienak laburbildurik azaltzen dira, ekarpen, prestazio eta erakundeko garapenaren ohiko atalak, hain zuzen ere, gardentasun eta kalitate osoko informazioa izan dezazuen, entitateko garapena baliozatu ahal izateko.

Geroara aportatzen duten Sektoreei dagokienez, 2006ko ekitaldian ez da beste berririk sartu, aurreko hamazazpiak mantendu direlarik. Hala ere, enpresa berri bat barneratu da, erreferentziatzko hitzarmen probintzialik izan gabe, atxikidura eskaera egin zuten, langileen aho batezko onarpenarekin.

Bost sektore: Gipuzkoako Siderometalurgikoa, Eraikuntza, Hornitegiak, Gipuzkoako lokalak, Ikuskizunak eta kirola eta Gipuzkoako fruten handizkariak % 0,25 eta % 0,50 artean gehitu dituzte ekarpen-ehunekoak. Ildo berean, Gipuzkoan hitzarmen sektoriala ez duten bederatzirek ere % 0,50 eta % 1,00 artean gehitu dituzte ekarpenak.

Sektore bakoitzaren ekarpenaren ehunekoak desberdina da, baina beti langileen arrisku arrunten oinarriari dagokio. Ekitaldi honetan honako taulan adierazten diren ehunekoak erabili dira:

Sektoreak	2006ko Guztizko Ekarpenaren %	Sektoreak	2006ko Guztizko Ekarpenaren %
Siderometalurgikoa	% 4,00 - %0,50ko hazkundera	Ehun arloko merkataritza	%1,60 Aldaketarik gabe
Zeramika	%3,50 Aldaketarik gabe	Larru arloko merkataritza	%1,60 Aldaketarik gabe
Zuraren industria	%2,00 Aldaketarik gabe	Metal arloko merkataritza	%2,00 Aldaketarik gabe
Garraio-kudeatzaileak	%3,00 Aldaketarik gabe	Gipuzkoako Garbiketak	%2,50 Aldaketarik gabe
Okindegiak	%1,20 Aldaketarik gabe	Hornitegiak	%3,50 - %0,50ko hazkundera
Beira	%3,50 Aldaketarik gabe	Fruten handizkariak	%1,75 - %0,25ko hazkundera
Eraikuntza	%3,30 - %0,40ko hazkundera	Merkantzien garraioa	%1,50 Aldaketarik gabe
Papera eta kartoia	%1,20 Aldaketarik gabe	Lokalak, ikuskizunak eta kirola	%1,00 - %0,50ko hazkundera
Altzariak eta osagarriak	%1,00 Aldaketarik gabe		

2006ko abenduaren 31n ekarpen gordinen guztizko zenbatekoa 79,04 milioi eurokoa da, hau da, % 17,50 hazi da aurreko urteko datuei dagokienez. Guztira jasotako ekarpenetatik, baliaezintasunaren eta heriotzaren prestazioen arriskuak estaltzera 7,90 milioi euro zuzendu dira. Zenbateko hori, era berean, honela banatzen da: kanpoko beraseguru-poliza bat egin da, 4,42 milioi euroko zenbatekoa; Erakundeak 1,04 milioi euro hornitzen ditu arrisku zuzeneko kontzeptupean; eta 2,44 milioi euro hornitzen ditu ekitaldiko soberakinetan, horietatik 1,15 milioi euro emaitzetara eraman dira, gehiegizko horniduraren kontzeptupean.

Erakundearen Gobernu Batzardeak, aurreko ekitaldian, biziarteko errenten arriskuak zenbatzea erabaki zuen, gehiegizko hornidura saihestearren. Hala, sortu beharreko horniduraren gehieneko zenbatekoa konpromisoen % 25ekoa izan zen. Ildo horretan, kontzeptu horren hornidura 1,29 milioi eurokoa da, eta 4,89 milioi euroko guztizko aurreikuspena lortu da. Zenbateko horrek osatu egiten du aurreko paragrafoan aditzera eman den soberakinaren helmuga.

Urtearen amaieran 140.032 bazkide arruntek edo langilek egin dituzte ekarpenak; hortaz, aurreko ekitaldiarekiko % 2,97ko gehikuntza izan da. Era berean, ekitaldi honetan 9.789 bazkide babeslek edo enpresek egin dituzte ekarpenak, hau da, 2005 ekitaldian baino % 2,75 gehiago.

Erakundearen ondarea, ekitaldi itxieran 590,55 milioi eurokoa da eta langileen artean egindako ekarpenen arabera proportzionalki banatzen da, aurreko urtearekin alderatuz % 21,40ko hazkunderarekin. Hala ere, kopuru honetan ez da barne hartzen Mutualitate-Funtsa, ezta biziarteko errentetarako hartutako konpromisoen ondoriozko desbideratzeak estaltzeko eraturako borondatezko hornidurak ere.

Ekitaldi itxieran, Erakundeak 15,90 milioi euroko Mutualitate Funtsa mantentzen du.

Ekitaldiko funtzionamendu eta amortizazio gastuak, kudeatutako batzbesteko ondarearen % 0,24koak dira eta langileen kargura doaz. Gainontzeko gastu arruntak aldiz, Mutualitate Funtsean kontabilizatutako zenbatekoek sortutako interesekin konpentsatzen dira.

EGOERA-BALANTZEA

2006ko abenduaren 31n, mila eurotan.

AKTIBOA

Ibilgetua	646
Inbertsioak	583.965
Interes periodifikatuak	18.206
Hainbat zordun	5.153
Diruzaintza	3.679

AKTIBOA GUZTIRA

611.649

GAINB. KONT. EZ GAUZATUAK.

1.336

PASIBOA

Fondo propioak	567.460
2006 ekitaldiko irabaziak	37.662
Arrisku Prest. Hornidura	5.771
Hainbat hartzekodun	756

PASIBOA GUZTIRA

611.649

GAINB. KONT. EZ GAUZATUAK

1.336

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2006ko abenduaren 31n, mila eurotan.

GASTUAK

Prestazioak, berrasegurua	9.151
Administrazio-gastuak	1.616
Inbertsio-gastuak	4.817
Hainbat eskubide bateratu	69.894
Ekitaldiko mozkina	37.662

ZORRAK GUZTIRA

123.140


SARRERAK

Ekitaldiko kuotak	79.044
Inbertsioen sarrerak	42.446
Arrisku Horn. soberakina.	1.650


HARTZEKOAK GUZTIRA

123.140


IRABAZIEN GARAPENA



2006 B. LIKI- DATIBOAREN BILAKAERA



Partaidetza balioa 1996ko otsailaren 23tik 2006ko abenduaren 31ra, 6,01eurotatik 12,936 euro izatera iritsi da



Inbertsio Karteraren Banaketa (%)

Finantza-merkatuei dagokionez, 2006. urtean gertakari ugari izan da. Ekialde Ertaineko auzi politiko eta militarrek, Ameriketako Estatu Batuetako aukera ekonomikoak jasandako andatzeko adierazgarriak eta petrolioaren prezio aldakorrek ez dute gutzitz hondatu inbertitzaileen konfiantza. Ameriketako Estatu Batuetako Erreserba Federalak interes-tasak gehiegi igotzeko aukeraren aurrean nagusitu zen beldurrak soilik eragin zituen maiatzean atzerapenak merkatuan. Nolanahi ere, Fed-ek etorkizunerako aukera neurri-zokoagoak agerian utzi ondoren, errenta aldakorrek merkatuak nabarmen egin zuen gora urtearen bigarren erdian. Errentagarritasunak onargarriagoak izan dira merkatuei nagusienetan, eta horien artean Espainiako merkatua nabarmentzen da (IBEX-35: + % 31,79), eta haren atzetik Europako gainaroko merkatuek (Eurostoxx: + % 15,11) eta Ameriketako Estatu Batuetako merkatuek –Dow Jones-en % 16,28-ko irabazierari eta Nasdaq 100-en % 6,79-ko irabazierari artean daude merkatu horiek-. Alde negatiboari errepaturaz, Japoniako merkatuak izan du portaerarik negatiboa; izatez, urtea zenbaki positiboetan amaitu duen arren (Topix: + % 1,90), haren errentagarritasuna iguripenetatik oso urrun egon da (errentagarritasun guztiak tokiko dibisan adierazita daude).

Errenta finkoari dagokionez, inbertitzaileen arreta bereganatu duen eta bereganatzen jarraituko duen faktoreetako bat Banku Zentral nagusien moneta-politika da. 2006. urtearen lehen zatian moneta-politika ezegonkortasun-iturri izan da, inbertitzaileak hazkunderaren eta inflazioaren aurkako jarrera beligerantearen beldur ziren. Beldur ziren jarrera horrek interes-tasak gorantz bultzatuko ote zituen eta, horrenbestez, ekonomia-jarduerak nabarmen kaltetuko zituen. Jakina, ez da horrelakorik gertatu. Izan ere, Banku Zentral nagusiak mutur horretara iritsi baino lehen gelditu dira –Erreserba Federalak, esate baterako, abuztuaz gerotik ez ditu interes-tasak igo– edo neurri baten barruan gehitu dituzte interes-tasak –hala nola Europako Banku Zentralak edo Japoniako Bankuak-. Edonola ere, Banku Zentral nagusiek interes-tasen igoera normalizatzeko abian jarritako prozesuak gorantz bultzatu ditu interes-tasen kurbak –tarte laburretan batik bat–, eta horrek ondorio negatiboa izan du prezioetan. Mugimendu hori dela eta, errenta finkoko merkatuek ezin izan dute inflazioaz gorako errentagarritasunik lortu. Ameriketako merkatuaren kasuan izan ezik –dolarretan % 3 inguruko errentagarritasunak lortu ziren–.

Errenta finkoko eta aldakorrek merkatuen portaerari, Europako moneta-ekitaldi honetan izan duen bilakaera positiboa gainertu behar zaio. Dolarerarekiko eta, batez ere, yen-arekiko balio handitze adierazgarriak izan ditu.

Maila makroekonomikoan, higiezin merkatuaren geldotzeak motteltze ekonomiko eragin du Ameriketako Estatu Batuetan urtearen azken zatian. Bien bitartean, gainaroko ekonomiek hazkundera handiagoarekin konpentsatu dute ekarpen txikiago horren zati handi bat. Garatutako merkatuetan zein garatzen ari diren merkatuetan, enpresa-mozkinetako gehieneko maila historikotik daude enpresak, eta nabarmen gainditu dituzte egungo iguripenak, nahiz eta lehengaeik eta energiaren kostuak etengabe gora egin duten. Horren guztiaren eraginez, enpresa horien balorazioek erakargarri izan jarraitzen dute, burtsa-merkatuetan gertatu diren igoeren gainetik.

lido horretan, Geroaren kudeaketa-taldeak egokitu egin du haren zorroaren dibertsifikazioa, eta, horretarako kontuan hartu ditu ekarpen berriak, errenta finkoko errentagarritasun mailak, eta burtsa-merkatuen eta truke-merkatuen bilakaera. Batetik, errenta aldakorren mantentzen ziren posizioak zertxobait gehiago gehitu dira eta dibertsifikazio geografikoari eutsi zaio; eta, bestetik, bonuen etekin irriaren aurrean, errenta finkoko ehuneko murriztu egin da korrelazio txikiagoko beste mota bateko aktiboen alde, hala nola funts alternatiboen alde, higiezin-produktuen alde eta zuzeneko inbertsioaren alde.

Horrekin guztiarekin, 2006ko ekitaldiaren amaieran Erakundearen ondareak % 67,02 ehuneko lortu du –errenta finkoan gauzatu gehien bat–, % 25,36 errenta aldakorri dagokio, % 0,64 higiezin inbertsioari –inbertsio funtsetan bideratua–, % 1,63 funts alternatiboen inbertsioari, % 3,55 errenta finkoko aktiboei –errenta aldakorrek aktiboen inbertsioari– eta, azkenik, % 1,80 zuzeneko inbertsioari. Urteko errentagarritasuna % 7,21ean kokatzen da, hau da, Erakundearen sorreratik % 7,31ko balio handitze konposatuko tasa lortu da.

Akzioetan egiten den inbertsioari dagokionez, % 2,09 inguru Espainiako burtsan gauzatu da. Bestalde, nazioarteko akzioetan egin den inbertsioa honako entitateek kudeatzen dute: Morgan Stanley, Credit Agricole eta Nordkapp entitatek eta Erakundeak kudeatzailek beraien. Ekitaldia amaiztean nazioarteko akzioetan egin den inbertsioa Inbertsio Zorroaren % 14,40koa izan da. Errenta aldakorrek inbertsio-funtsetako partaidetzek inbertsioaren % 8,87 hartzen dute. Azkenik, Erakundeak zuzeneko inbertsioan duen posizioa zertxobait gehitu da, eta % 1,80an kokatu da.

Ekitaldiaren amaieran, inbertsio-zorroa 602,75 milioi eurokoa da, likidezia eta kontabilizatu gabeko errenta aldakorrek ezkutuko gainbalioak barne. Erakundearen inbertsio-zorroa balorazioetara erabili den irizpidea honakoa izan da:


Errenta finkoko aktiboen eskuratzeko-prezioan baloratuko dira, jaulkitzaile-arriskua salbu, eta ez merkatuko prezioan. Aktibo horiek euroaz bestelako dibisa batean izendatuta badaude, merkatuko prezioetan baloratuko da dibisa hori.

Errenta aldakorra –arriku-kapitaleko sozietateak edo funtsak barne– batez besteko eskuratzeko-prezioan baloratuko da, edo merkatuko balioan –azken hori txikiagoa denaen–; Nolanahi ere, dibisa-efektua barne hartu behar da, baldin eta aktiboa eurotan izendatuta ez badago.

Dibisako posizioak –eskura edo epe laburretan– merkatuko prezioan baloratuko dira.

Orza AIE sozietatea Erakundearen kontabilitate-balio teorikoan baloratuko da, haren enpresak eskuratzeko-prezioan baloratuta badaude ere.


Erakundearen Gobernu-Batzordeak, 2006ko abenduko Batzordean Inbertsio Printzipioen Adierazpena onartu du, inbertsio kartera osatzen duten tipo aktibo batzuen eta besteen banako portzentzia eta multzokoa mugatzeko, arriskua murriztu eta kapitala babesteko helburu iraunkorreakin.



Prestazioak

2006. urtean zehar 1.802 prestazio egin dira, 1.009 erretiroaren ondoriozkoak, 362 baliaezintasun osoaren ondoriozkoak, 179 baliaezintasun absolutuaren ondoriozkoak, 11 baliaezintasun handiaren ondoriozkoak, 179 heriotzaren ondoriozkoak, 47 atzerapenen ondoriozkoak (Aurreko

ekitaldietako prestazioak), eta 15 langilearen baliaezintasun absolutua edo heriotza eragin duten lan-istripuen ondoriozkoak. Ordaindutako prestazioen zenbateko osoa, kapital zein errenta moduan, 9,16 milioi eurotar iritsi da. Errentegatik konpromezuak 4,19 eurotan hazi dira ekitaldian.



Baliaezintasunen eta heriotzen ondorioz gutzira ordaindutako edo hitz emandako prestazioetatik, 532 prestaziok estaldura osagarria izan dute, gutzira 7,91 milioi eurokoa. 294 kapital gisa ordaindu dira, eta gainerako 238ak biziartereko errenta gisa eta finantza-errenta gisa ordaindu dira. Abenduaren 31n, 989 biziartereko errenta bizi zeuden, eta 12 finantza-errenta.


Errenta horiei aurre egiteko GRM/F- 95 taula aktuarialak erabili dira, eta interes-tasa teknikoa

% 4koa izan da. Kontzeptu horren ondorioz bere egindako konpromisoak 2001 ekitalditik, 19,27 milioi eurokoak dira (2007an egin beharreko 0,39 milioi euroko balio handitzea kontuan hartu gabe). Biharko, Consultoria de Fondos de Pensiones y Entidades de Previsión Social Voluntaria, SAK baloratu ditu.

Geroak denboran zehar konpromezuak alda ez daitezzen, hauen %25ko hornidura zuzkidura du, 4,89 milioi eurotako hain zuzen ere.

Gertaera Aipagarriak

2007ko urtariletik, eta Erakundearen Gobernu Batzordearen erabakiz, biziartereko errenta gisa egiten ari diren prestazioak % 2,04 handituko dira balioz, bai hartutako erabakien eraginez, bai Erakundeak lortu duen errentagarritasunaren oinarrituta. Azken lau urtetan biziartereko errentak % 10,92an birbalorizatu dira.



GEROA
B G A E